


SECCION AMENA.



¡ZER KONSEJARIYA!



—¿Aizazu adiskide?
 ¿ez aldezu aitzen?
 erriyonetan nola
 ni bizi eznaizen,
 kale bat esan naute
 eztakit zer izen,
 baña *izpeziyua*
 nola dagon anchen,
 ¿esango aldirazu
 nondik juango naizen?

—¡Gizona, asi zaitte
 zu berialaŕen,
 zillartegi ortatik
 zerebait ostutzen,
 eta lapurtzen nola
 ezpaiduten uzten,
 lepotik beriala
 gogor dute eusten,
 eta *izpeziyora*
 nola Porru naizen,
 eramango zaituzte
 aguro ta zuzen.

V. IRAOLA.

**ESKATU-ESKIÑA.**

Peruk aurkitzen zala oyan miñez larri,
 Deitu eutsan Josepe zulogilleari,
 Jakiteko zenbat zan lurpean sartzea,
 Iruntsi ebalako lastercho illtea.
 Zulogilleak esan eutsan: «iru dukat,
 »Prezio au jarria aspaldian daukat».
 —¿Ezin leike Josepe piskat merkeago?
 —¿Zelan nai dozu Peru iru dukat baño?
 —Egiñ nai ezpadozu Josepe batean,
 Enaz ni bere illgo merkatu artean.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

